Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

6335

EBAZPENA, 2010eko abenduaren 13koa, Giza Baliabideen zuzendariarena; horren bidez, Herrizaingo Sailaren Giza Baliabideen Zuzendaritzako Lurraldeko Buruei 2000ko martxoaren 31ko ebazpenaren bidez egindako aginpideen eskuordetzea baliogabetu egiten da.

Herrizaingo Sailaren Giza Baliabideen zuzendariaren 2000ko martxoaren 31ko ebazpenaren bidez (90. zenbakiko EHAA, 2000ko maiatzaren 15ekoa), Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urriaren 19ko 358/1999 Dekretuaren 18.artikuluan jasotako zerrendan adierazitako zenbait aginpide sail horren Giza Baliabideen Zuzendaritzako Lurraldeko Buruei eskuordetzea erabaki zen.

Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 16. artikuluan (azaroaren 23ko 303/2010 Dekretuak aldatuta eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13.6 artikuluaren babesaz), aginpidea, edozein unetan, eman duen organoak ezeztatu ahalko duela ezarri da. Horrenbestez,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Baliogabetu egingo da sail horren Giza Baliabideen zuzendariaren 2000ko martxoaren 31ko ebazpenaren bidez emandako Herrizaingo Sailaren Giza Baliabideen Zuzendaritzako Lurraldeko Buruentzako aginpideen eskuordetzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2011ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Erandio, 2010eko abenduaren 13a.

Giza Baliabideen zuzendaria,
JOSÉ M.ª ECHEGARAY FERNÁNDEZ.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

6335

RESOLUCIÓN de 13 de diciembre de 2010, del Director de Recursos Humanos del Departamento de Interior, por la que se revoca la delegación de determinadas competencias en los jefes territoriales de la Dirección de Recursos Humanos del Departamento de Interior, la cual fue conferida por Resolución de 31 de marzo de 2000, del Director de Recursos Humanos.

Mediante Resolución de 31 de marzo de 2000, del Director de Recursos Humanos del Departamento de Interior (BOPV n.º 90, de 15 de mayo de 2000), se dispuso la delegación de determinadas competencias relacionadas en el artículo 18 del Decreto 358/1999, de 19 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior, en los jefes territoriales de la Dirección de Recursos Humanos de dicho Departamento.

De conformidad con lo previsto en el artículo 16 del Decreto 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior, modificado por Decreto 303/2010, de 23 de noviembre, y con apoyo en el artículo 13.6 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que establece que la delegación será revocable en cualquier momento por el órgano que la haya conferido,

RESUELVO:

Primero.– Revocar la delegación de competencias en los jefes territoriales de la Dirección de Recursos Humanos del Departamento de Interior, conferida por Resolución de 31 de marzo de 2000, del Director de Recursos Humanos de dicho Departamento.

Segundo.– La presente Resolución entrará en vigor el día 1 de enero de 2011.

En Erandio, a 13 de diciembre de 2010.

El Director de Recursos Humanos,
JOSÉ M.ª ECHEGARAY FERNÁNDEZ.